

"Ghetto"-tik ihesi

Deia, 1977-08-02.

Atzo, kulturaz ari ginen.

Gaur ere bai, baina beste alde batetik begira.

Orain arteko gure lanik politikoena, kultura-lana izan da; eta behar dugun kultura eginkorra osatzeko, sortu den giro berri hontan politika-bideaz baliatzen hasi beharrean garela esaten genuen.

Bide berri bat hartzeko, ordea, bestea utzi egin behar da.

Ba, hauxe da gaur adierazi nahi nukeena: politika-bide berria hartzeko, aspaldi gurea izan den "ghetto" edo baztertuen hauzo hortatik alde egin behar dugula.

Aspaldi esan zuen Detchepare-k hau!

Baina geroztik mendez mende, euskera bestek bazter arazi digu, edo geok, euskaldunok, baztertu dugu. Defentsa gisa, baina guregan bildu gara. Eta gaurko munduan berez baztertzen denarenak egin du. Azken berrogei urte hoietan, aitatzen dugun ghetto hau beharrezkoa zen.

Gure etxean ez ginen, eta ez gera oraindik!, nagusi. Areago; kanpotarrak nagusitu dira. "Habla en cristiano"-k ireki ditu hoiien bideak, eta gureak itxi. Hala, izpirituari dagokion leku estu eta itxi batean, desprezio-hauzo den ghetto hontan sartzen eta estukatzen joan gera. Hor sentitzen gara gure etxean; gure arbasoak haitzuloetan bezala. Hor irauin dugu orain arte: ixilpean sortzen hasitako ikastoletan, ia izkutuko ziren euskal mezetan; jaialditarako baimenik gabe eratzen ziren hizketaldi eta bertsolari jai eta kantaldietan.

Hau dena, beharrezko zen; honek salbatu gaitu.

Baina, ba da hortik ateratzeko garaia. Bestela, gure inguruan mundu berri bat erdaraz eta erdaldunak egingo digute, erdal izpirituarekin piztuko dute, eta gure herriaren sena, gure mundua, kizkurtuko zaigu, eta ghettoan, pizti batzuk hiltzeko orduan joan ohi diren bezala, haitzuloan sartuko gera betiko.

Eta zer dugu berritu beharra?

Inguruan sentitzen dugun munduan, mundu guzia, euskaldundu eta hartu behar dugu. Gure herrian, guk behar dugu izan nagusi. Ez inor gugandik uxatuaz. Hau, beldurrak eraginda ghetto-ratzen ari diren batzuk egiten dute. Guk hasi behar dugu eguneroko prentsa eta irratia egiten; ari gara, dagoaneko. Tebista lortu behar dugu bereala, eta hontarako gogoia duten gazteek ahaleginean ikasketak egiten hasi behar luteke. Zine euskaldun baten behar gorrian gaude. Gure herrietako jaietan, lehena errepikatzaile diren antzerki klasikoekin batera antzerki berria, ausarta, burutzen hasi beharrean gara. Euskal literatura bideak ere berritzen joan behar dugu.

Euskerak egin behar dituen bideak mila dira, noski.

Bestetik, eta bakoitzaren neurrian, euskera etxetik kanpora atera behar dugu, lantegian, hartu-emanetan, ostatuetan, dendetan. Ez dugu hau arrokeriaz egin behar;

inor alperrik mintzea ez baita bidezko, eta ezta onuragarri ere; baina gurean mintzatzeko eskubide osoa dugula erakutsi egin behar dugu.

Nik arazo hau larrien ikusten dutan lekua, ikastola eta Unibertsitatea orain aurkitzen diren bide-gurutzea da.

Orain arte, ikastolak ghetto antzeko zerbitzua eman digu. Eta oso ona. Baina beste garaia heldu da, zorionez. Gaur, euskerak denen eskola ofizialera sartu behar du. Ez dakit zein neurritan eta nola burutuko den hau, baina euskerak hemen ere, hezitze maila hontan, plazaratu egin behar du. Unibertsitateaz ere kezka berdina erakutsiko nuke. Euskal Unibertsitatea, nahi eta behar dugu; baina ezin gara honen zai geratu, eta Distritu euskaldun bat behar dugun bezala, Euskalerrango Unibertsitate ofiziala bereala, gaur, behar dugu lortu.

Hontarako, bide politikoak ibili behar ditugu, noski. Baina hoiak datozenerako erne eta adi egon behar dugu. Bakoitza berean joan behar du profesionalki gertatzen, erakundeak sortzen, herriz-herri eta ballaraz-ballara biharko asmoak burutzen.

Honela bakarrik aterako gara ghetto-tik.

Ghetto hau, beharrezko izan dugu aspaldi; gure arbasoak haitzuloak bezala, guk ere behar genuen babes. Baina jasaren ondoren ateri bada, behar dugu eguzkia erraz sartuko den beste etxe argiago eta osasuntsuagoa arkitu.

Ikurriña eta "Euzkadi" izena besteak ere beretzat hartzen badituzte, guk zer egin behar dugun?

Herritasunez eta euskal senez piztu.

Ba da lana pranko.